

XIII. JAGON JARDUNADIAK: EUSKARA, KONTSUMOA ETA HIZKUNTZA ESKUBIDEAK. ONDORIOAK

Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatzea gizartean bizikidetzeta eta kohesioa areagotzeko ekarpen bat da. Gizarte bizitzan euskara indarberritzeko ahaleginan egindako urrats berri bat da.

Euskaltzaindiari dagokio, besteak beste, hizkuntza lantzea eta arautzea, euskara are noranahikoagoa bilakatu eta haren erabilera indartzen joan dadin. Inguruabar horretan, kontsumo arloan hizkuntza baten erabilera kuantitatiboa eta kualitatiboa da haren bizi-indarraren adierazle erabakigarrienetako bat. Horiek horrela, euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubideak aztergai izan ditu Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak XIII. Jagon Jardunaldietan.

Badira, euskararen lurralde lur eremu zabalean, eskaria eta eskaintza kontuan berez arautzen den merkatu *libreaz* dihardutenak, baita hizkuntza kontuetan ere. Alabaina, hizkuntzen auzia dialektika horren legetara eraman nahi izateak merkaturan indartsu denaren legea aplikatzea, liberalismo linguistikoa jaun eta jabe egitea alegia, hizkuntza indartsuenak gailentzeko dinamika areagotzea eta hizkuntza ahulak are bazterrerago uztea dakar ezinbestean, ondorioz, herritarren hizkuntza-aukerak murriztuz eta hizkuntza-eskubideak hankapean hartuz eta euskara bezalako hizkuntzak indarberritzeko atek itxiz.

Euskara aktiboki bultzatzea inork ez luke gaztelaniari edo frantsesari bizkarra erakusten dion jokabidetzat hartu behar. Aitzitik, ahulenaren aldeko politikak, berdinkideak diren pertsonen hizkuntza-eskubideak errespetatzea daitezkeen urratsak egitea, herritarren aukera berdintasuna areagotzea dakar, gizarte demokratikoen oinarria den herritarren askatasunean sakonduz. Alabaina, hizkuntza aukera berdintasuna ezin da egun batetik bestera erdietsi.

Erabilera da hizkuntza baten bizi-indarraren termometrorik behinena. Euskarak aurrerapen handia egin du irakaskuntzan, administrazio publikoan, hedabideetan eta kulturgintzan. Alabaina, euskara indartsu da bizitza sozio-ekonomikoan sartzen den neurrian, lan munduan, saltegietan, zerbitzu zentroetan, eta abar, hots, ekoizpen eta kontsumo guneetan. Esan dezakegu kontsumoa hizkuntza politikaren bide-gurutzean dela: eguneroko erabileraren alorra baita, bizitza osoa hartzen duen eremua.

Kontsumoak ekoizpena baldintzatzen du, adibidez publizitatea. Gauza nabariago da zerbitzuetan. Kontsumoak baldintzatzen du neurri handi batean hizkuntza-paisaia. Hor ditugu begien aitzinean enpresen izenak, produktuen etiketak, zerbitzuei buruzko argibideak eta kontsumoa bideratzen duen publizitatea. Euskarari ematen zaion tokiaren arabera euskaltasuna dugu,

beraz, kontsumoa dela bitarte, agerian. Horregatik, eremu honetan egin diren ahaleginak ez dira gaurkoak, izan ere, XIX. eta XX. mendeetan, bezeroak eta erabiltzaileak erakartzeko eta haien apetak asebetetzeko ez ezik euskara indarberritzeko ere ahalegin ugari egin baitira. Horiek ere aztergai izan dira XIII. Jagon Jardunaldietan, eremu administratibo bakoitzean gertatu den bilakaera aztertuz eta egungo errealitateari buruzko iruzkinak eginez. Era berean, Catalunyaoko oinarrizko habe juridikoen eta egindako ibilbidearen berri zehatza eman da.

Halaber, Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailean onartutako 123/2008 Dekretua, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzkoa aztergai izan da. Dekretuaren nondik norakoak azaltzeaz gain, izan dituen aldeko eta kontrako iritziak ere aipatu dira, besteak beste, zenbait jardun-eremutan duen eragina berariaz aztertuz. Nolanahi ere, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak errespetatu daitezkeen garrantzi handiko urrats berri bat egin dela ezin uka daiteke, gure ustez, gizarte baldintzek, herritarren atxikimenduak bereziki, aukera berriak ahalbidetu ahala, bestelako urratsetarako aukerak eskaintzen dituen urratsa, ez bairik gabe.

Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitzan.

2008-11-21